



PAPER MENDE

Piarres Larzabal

Iturria: *Piarres Larzabalen idazlanak (III)*, Piarres Larzabal
(Piarres Xarrittonen edizioa). Elkar, 1992

Klasikoen Gordailuan:
<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/L/LarzabalPaperMende.htm>

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira,
eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak
bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

PAPER MENDE

(Hiru gertalditan)

Jokalariak:

KOXE: 25 urte, edozoin.

LUZI: 25 bat urte, edozoin.

MERA: 50 bat urte, jaun aire.

BERONIKA: 40 bat urte, edozoin.

PANTXIKA: 20 bat urte, pollit.

JOSET: 40 bat urte, edozoin.

A.: Bulegolari edozoin, 40 bat urte.

B.: Bulegolari mokor, 50 bat urte.

C.: Bulegolari emaztekari, 30 bat urte.

UXERA: 50 bat urte, moxkor.

KONTESA: Zahar eta bitziki beztitua.

NESKA: 20 bat urte, edozoin.

ENPLEGATUA: 30 bat urte, edozoin.

ARTZAINA: 40 bat urte, boza azkarra.

MEDIKUA: 50 bat urte, edozoin.

Beste lau-bost, ez direnak mintzatzen.



LEHEN GERTALDIA

Joka-lekua:

Sukalde bat, edo berdin edozoin barne.

I

Koxe marradera eta lapitza eskuan, xixtuz, paper zirimarratzen ari, mahainaren gainean.

LUZI: (*Sartuz, haurra sebakian pusatzeko duela*) Ori, ekartzen dautzut... Tutua dena hustu du.

KOXE: (*Jostakin*) Zato Luzi... Zato hunarat ene andere izarra... Ean zer diozun gure etxe berriaren planaz...

LUZI: Nik, zer nahi duzu konpreni dezadan!

KOXE: Ez da gaitz... Beha zazu... Huna sartzeko atea... Eta, hauk hemen: Hiru ganberak... Hemen zerbitzuak, eta hori: Garbi tokia... Eta hau berriz: Puska-tzarategia.

LUZI: Sukaldea ikusten dut, bainan nun duzu suilarda?

KOXE: Suilarda behar baituzu baitezpada?

LUZI: Ahal balitz ba... baxera zikinak gordetzeko ere.

KOXE: Bon... Orduan, sukaldeari kenduko diogu kantaila bat... Aise egin ditakena da.

LUZI: Suilardako mahaina nahi nuke gainez lekuduna, baxerentzat bezenbat baliatuko baitut jateko gaien apailatzeko.

KOXE: Mahain hori, ondotik muntatzen dena da... Lehenik altxa dezagun etxea... Gero aipatuko ditugu mubleak.

LUZI: Bai eta... Ganberetako taulak nahi nituzke bernizatuak, ez hor airtzeko torra eta torra leher egina, ezko dirdira ezin ateratuz.

KOXE: Hori ere, egin ditakena da, bainan ondotik.

LUZI: Ba eta... Murru-armarioak nahi nituzke. Toki gutiago hartzen dute eta ez dute ezkoztatzeko lanik.

KOXE: Debrua!... Naski planak berriz haste ditut.

LUZI: Hor ere, xakurtegia ezarria duzu ate aintzinean, bainan nun duzu egurtegia eta nun oto eta motoen lekua?

KOXE: Otoa ere esperantza baituzu?

LUZI: Zertako ez?... Gu baino irabazdun ttipiagokoek dutena, ez ote ginezake guk bil?

KOXE: (*Irriz*) Ai, ai, ai, gaixo ni!... Zoazi hemendik!... Bestenaz ez dut etxe baten plana muntatu beharko, bainan jauregi batena...

LUZI: Xuritzeko iturria ere behar liteke ba nonbait!...

KOXE: Baita ere!... Egia da errana: Anderea hartzen duenak, karga hartzen duela. Zure senarrak ez zuen «Koxe hargin» izan behar, bainan, «Musde notari» baizik. Edo holako xapeldun nonbait.

LUZI: (*Irriz*) Ha, zer nahi duzu!... Oroit zaite, ezkondu aintzin, nola hitzemaiten zinautan, supazter xokoan, goxoki bi-biak egoiten ginelarik... Orduan zinon, ez zela nehor izanen enetzat zu baino senar hoberik... Ene desira bakarra zuretzat manamendu sakratu bat izanen zela... Orai peka-azu!...

KOXE: Eta zuk, solas horiek gogoan atxiki!... Ez da kanibetik hain xorrotzik nola baita emazte baten memoria, hitzeman diozunaz oroitzeko!

LUZI: Zer uste zinuen... aintzinetik hitzemanak gal direla, ezkonduz geroz?... Ez da gero ezkontzako ganbaran, deputatu ganbaran bezala sartzen... Hek, sartuz geroz, kito dira hitzemanarekin... Hemen berriz legea da: Zorren pagatzea hitzartu bezala...

KOXE: Eta, nik hori ez jakin! Ha, balakite mutilek, neskatxen memoria zoin argi egoiten den, mutu bilaka litazke!

LUZI: Ezkon aintzin, mutilak «ttette» eta neskatxak «urtzo» agertzen dira, gurutzamenetan... Bainan, ezkondu-eta: Urtzoa, ha zer xoria! Eta ttette, zer zakurra!... (*Atean, zakurra saingaz*)

KOXE: To... Gure zakurrak uste izan du, nik uste, hartaz ari ginela!... Ean, zu leihotik norbait ote den!

LUZI: (*Behatuz*) Jaun mera heldu... Zertan ote dabila?

KOXE: Joka nezake lepoa, bozeri buruz heldu dela, ni bere lixtan beharrez!

LUZI: Bon, ni ene lanetarat noa... Aipaila zaitzte hor, buruz buru! (*Ateratzen da*)



II

KOXE: (*Bakarrik*) Kaka zaharra dela!... Kontseiluko gizonak ere behar!... Ezetz erraiten, ez errex eta baietza emaiteko, batere ez bero!... Hau da debrukeria!

MERA: Heup!... Hor haiz?...

KOXE: Aintzinat, aintzinat, jaun mera.

MERA: (*Harritua*) Jes!... Zer ari haiz hor, hire lapitz eta marradera horrekin?

KOXE: Enetzat egin gogo dudan etxe berria, neurritan emaiten!

MERA: Hik etxe berria hirezat?... Nun?

KOXE: Hor, Gurutze landan...

MERA: Gurutze landan?... Hum, duda nezakek!

KOXE: Duda?... Zertako?...

MERA: Landa hori salmentan duk, bainan baditik horrek, hitaz beste, erostunak... Ala ez dakik goraxagoko Joset hori, horren gainean dela?

KOXE: (*Samur*) Joset?... Josetek zer behar dio landa horri?... Ba ahal du hola-hola aski lur?... Zer nahi du kartier guzia beretu?... Landa hori, guk ibiltzen duguna da egundainotik. Guretzat da salmentako lehen eskua.

MERA: Ez diat erraiten ez dukala arrazoin, bainan haut bakarrik argitzen gauzak nola diren.

KOXE: Ez naiz batere Joseten, eta ez horren moltsa handiaren beldur... Balin baditu adixkideak lege gizonetan, atzemanen ditut nik ere aintzinekoak... Eta, horrenak baino hobeak... Pentsatzen dut, jaun mera, ez duzula, zuk ere, arre eginen zure beharretan gertatzen banaiz...

MERA: Ni denen mera nuk hemen... Makurbidetan, beti urratuaren peraxatzerat entseiatzen nauk.

KOXE: Ez ahal zaude ikusi gabe nun den zuzenbidea. Etxe berriaren, lur hortan altxatzeko badut jada hameka sakrifizio eginik. Ene ametsa egundainotik hori izan da...

MERA: Ez zakela gero uste izan, hire plana hori onartuko dutela bulego-tako jauntxoek... Ez eta ere, plana bakarrik aski zaiotela, etxea eraikitze baimenaren largatzeko.

KOXE: (*Haurra nigarrez lotzen da... Sehaska bigituz mintzo*) Zer behar dute ba gehiago?

MERA: Zer gehiago?... Hainitz eta hainitz paper galdetzen ditiztek... Besteak beste: Elektriak, ura eta zerbitzuak badituzkalako age-riak... Hire etxea ez dela tokien itsusgarri ere, beharko duk papera... Gero plana guziak hiru andanetan. Herriko etxe-ko baimena, lurraren jabe haizelako papera, lurraren neurriena, etxe inguruen plana, etxearen gosta-saria, eta beste hainbeste segurik, ez baitzaizkiat gogorat heldu...

KOXE: Zer zira bederen, Josetek hunarat igorria, ni deskuriazteko?

MERA: (*Samur*) Errak to!... Orai artino frogak eman ahal ditiat nolakoa naizen... Ez nauk ni, ez Joseten eta ez nehoren xakur. Bakarrik, haut jakintsun egiten, zoin bide patarrari lotu haizen.

KOXE: Ez naiz lehena, etxe egiterat abiatua... Ene inguruan, ni baino gibelatua go direnak ikusten ditut, etxe berri baten jabe bilakatuak.

MERA: Etxe baten altxatzea errex duk... Haren altxatzeko behar diren paperen muntatzea duk neke... Sinets nezak.

KOXE: Ez naiz batere kexu... Diruarekin oro ukaiten dira.

MERA: Bazukek aberats haizen. Behartuko zaik... Jakin zak, paperek berek, etxeak balio duenaren parte on bat janen dizkiatela.

KOXE: Beharbada ba, denak bestez egin araziz, bainan nekez norbera on bada paper lanetako.

MERA: Berriz ere abisatzen haut: Paperak, bestez egin araziz, zernahi gostatuko zaizkik... Hihaurek eginez, oraino gehiago gostatuko zaizkik.

KOXE: Bon, bon... ikusiko dugu...

MERA: Ba, denborak argituko hau, beste asko bezala. Eta, agian ongi aterako haiz... Agur, to!...

KOXE: Zertako ez naiz ongi aterako?... Agur ba!

III

KOXE: Doala bere bidean eta utz nezala ni enean! Eni paperez zerbitzu egin nahia da, dudarik gabe, gero ni, bere zerbitzari bilaka nadien... Kontseiluz nahi nau kontseilukoratu bildu... Ez naiz ni paper eta paper-gizonen beldur... (*Oibuz*) Luzi!... O Luzi!...



LUZI: (*Agertuz*) Zer duzu?... Bakarrik zira?...

KOXE: Ba!

LUZI: Zer nahi zuen?...

KOXE: Nik uste sudurra sartu ene aferetan, gero ni berari buruz zordun izaiteko... Otoi, haur hau kontsola-azu!

LUZI: (*Sebaska bigituz*) Jes! Bainan galdatu zaitu ala ez bere listako?

KOXE: Ez aipatu ere... Bainan badakizu zer dudan ikasi?

LUZI: Zer?...

KOXE: Joset filda hori, Gurutze landa erosi beharrez ibilki omen da.

LUZI: Zertako erraiten duzu «filda hori»?... Bere dretxoa ahal du, zu bezenbat, nahi badu landa hori erosi!

KOXE: (*Samur*) Zer bere dretxoa?... Mintza dadiela beraz eta goberna dadiela gizonki. Aspaldi du salatu niozkala landa hortaz ene xedeak... Orduan onetsi eta goretzi ninduen... «Baietz ba, erosteko ba landa hori... Eni zela tokatzen nehoi baino lehen». Eta orai zer dabila ondotik?... Egun guziz, gure atetik iragaiten da... Egun guziz, bere andere Beronika, hemen duzu... Zertako ari dira hola ixilik eta azpiz? Zertako ez mintza argi eta garbi?... Ez da hori gizontasuna, ez eta auzo-egitatea.

LUZI: Ez da errana, ez dela mintzatu gogo... Beharbada gauzak aski finkatu artio beha dago, gero zu atzemaiterat etortzeko.

KOXE: Ba zera!... Etorriko ahal da, zakuan sartu nauela erraiterat!... Oroitu zaitte zoin arrazatik den gizon hori... Horrek baditu bere baitan otsoa eta azeria... Otsoa da, denak beretu nahi baititu, eta... azeria, beti azpiz baitu bere jokoa.

LUZI: (*Zakurra saingaz*) Xo... Beronika da hemen!

KOXE: Sar dadiela! Ni kofesatzeko prest naiz!

LUZI: Otoi, Koxe, enegatik, entzun duzu, enegatik bederen, ez zazula eskandalarik eman.

IV

BERONIKA: Hela!... Bada nehor etxe huntan?

LUZI: Aintzinat, aintzinat Beronika.

BERONIKA: Zer ari zarete?... Gizonak etxean, igande arratsaldearekin?... Musa galtzen ari da ostatu horietan edo zer?

LUZI: Ez, gu etxean aritzen gira musean buruz buru, senarrak «inbido» eta nik «iduki».

BERONIKA: Hobe hobe segurki. Nahi nuke gure Josetek, gauza bera egin baleza enekin.

LUZI: Zuk, nun duzu Joset?

BERONIKA: Nork daki nun dabilan!... Egun «estazioneak» zirela erranez, bezperetarat joana zait... Bainan, bide zituen ba hor non-bait ohoratzeke, elizako estazionez besterik.

LUZI: Zer nahi duzu!... Igandea ez da bakarrik elizako eguna, bainan ere adixkidekin deskantsatzeko eguna.

BERONIKA: Ba, ba, hala da gizonentzat segurik... Errazu, ahate arroltzerik baduzuenetz galdatzerat etorria nintzen.

LUZI: Ba, mementoan ari zaizkigu frango polliki erruten.

BERONIKA: Oilo papun eder bat kolokatu zaigu, eta, ahate arroltzekin nahi nuke xitan ezarri.

LUZI: Agian zorte ona ukanen duzu.

BERONIKA: Irrisk-ala-putx, hori!... (*Koxeri*) Jes! Zu zer ari zira zure lapitz eta marradera eskutan?

KOXE: (*Ate-leihoak neurtuz*) Ofizio berri bati lotua naiz... Akitua bainaiz hargingoan, bulegolari jartzen naiz... Hola bederen, esku azala ez dut fundituko.

LUZI: Ba, baxeliergorat behar omen du upatu... Zonbat arroltze nahi dituzu?

BERONIKA: Ekaitzu hamahiru. (*Luzi ateratzzen da*) Jes, bainan, hori etxe baten plana duzu!... Norentzat ari zira horren egiten?

KOXE: Hau da gure etxe berriaren plana.

BERONIKA: Ha! Eta... nun altxatu gogo duzue etxe hori?

KOXE: Gurutze landan.

BERONIKA: Jesu!... Ez bide daki Josetek... Landa hori inkantean joaitekoa zela, oraino goiz huntan aipatzen zaitan.

KOXE: (*Boza dorpetuz*) Inkantean?... Nork atera du holakorik?

BERONIKA: Ez dakit... Nik hola entzuna diot Joseti.

KOXE: (*Samur*) Joseti erranen diozu, ene partez, landa horrek bere jabe berria baduela, eta jabe hura, ni naizela.

BERONIKA: Ha, ez nakien, ez nakien.

KOXE: Orai jakinen duzu, eta, ikasi bezala salatuko diozu Joseti.

LUZI: (*Sartuz*) Oritzu arroltzeak... Agian, hamahirutarik, hamahiru xito aterako dituzu...

BERONIKA: Dotzenaz kontent ninteke... Zonbat da!



LUZI: Hiru libera.

BERONIKA: Horra... Bon, milesker beraz, eta, berriz artio... (*Ateratzen da*)

LUZI: Ba, nahi duzun artio... (*Apur bat ixilik*) Jes, uzten ahal zinueen ba ixilik erranez geroz.

KOXE: Ez dut nik saila hasi... Berak eman daut haria...

LUZI: Horra nola sortzen diren samurgoak auzoen artean... Urratzea aiseago da peraxatzea baino.

KOXE: Holako auzoekin hobe da «hi hor eta ni hemen» bizitzea, sobera gurutzamenik gabe... Nork daki ez ote den emazte hori hunarat etorria gu zirikatzerat, nun zer ikasiko gureganik?

LUZI: Bo... Zoin aise belzten duzun haatik jendea! Aski garbi seinale ahal zen, arroltze erosterat etorria zela, gainerateko gibelasmorik gabe.

KOXE: Bai, horrek duen birikarekin, jakinen duzu zuk, noiz dabilan zinez eta noiz estakuruz...

LUZI: Ez da hola sobera idurikorra behar izan.

KOXE: Eta ez sobera sineskorra ere, zu ziren bezala. (*Zakurra saingaz*) Te, horra nun duzun ahizpa

LUZI: Ba, orai errazu horrentzat ere, gu zelatatzerat heldu dela.

V

PANTXIKA: (*Sartuz*) Arratsalde on bieri...

KOXE: Arratsalde on ene koinata paregabea.

PANTXIKA: Zer ari zarete?

LUZI: Mokoka ari gintunan, usaia ez galtzeko.

PANTXIKA: Ba, mokoka ere bizi behar du... Familiako bizia ontzeko, mokoka pixka bat behar omen da, gatza behar izaiten den bezala tupina ontzeko.

KOXE: Uztar zaite, uztar, zu ere, Xalbadorrekin... Ikusiko duzu ean biharumuna, bezperako ametsaren potreta izanen den...

PANTXIKA: Egingen dugu, guk ere, bestek bezala... (*Sebaskari mintzo*) Ean ñiñi, irriño bat zure ttantta Pantxikari!... Zer zira muttur? Arras zintzo aldian dugu naski gure gixona!

LUZI: Ba, esnea oxtian edana din, eta ez din oraino xorta goiti aurtikia.

PANTXIKA: Bon, bon... Utziko dugu bakean gure gixona, arindu artio. (*Koxeri*) Eta zuk, plana hori zertan duzu?

KOXE: Gure haurren ganberetan ari naiz.

PANTXIKA: Egin-zkitzu gero aski lekudunak. Senar-emazte mokokariak hainitz haur izaiten omen dituzte.

KOXE: Nundik ateraia duzu jakintza hori?

PANTXIKA: Ene baitatik... Ni ere Xalbadorrekin haserretzen bainaiz, ondolik adixkidetzeko plazerrarengatik... (*Irriz*)

KOXE: (*Irriz*) Ha, zer xoria zu!... Luzik eta nik ditugun, berriz adixkidetze guziak, fruituraten badira, zombait eta zombait ganbera muntatzen ahal ditut gure haurrentzat.

PANTXIKA: Ba eta partikulazki gainerat bixkiak heldu badira!

KOXE: Ez araz, debrua!... Bakuneko batekin jada ezin burutuz ari-eta, zer ote liteke bordaren bete ardi muntatzen baginu?

PANTXIKA: Horiek hola, segur zarete Gurutze landa zuentzat izanen dela?

KOXE: Agian ba! Ala, zuk ere hortaz zerbait entzun duzu?

PANTXIKA: Nik ez; bainan, Xalbadorrek salatu dautanaz, aipamena da Joset lur horren erostun dela, ez omen beretzat, bainan norbaitentzat.

KOXE: (*Kexu*) Urde zikinal!... Ez da ez naski aipamen hori, surik gabeko kea!... Doidoia du Beronika hemendik ateraia dela, eta haren solasak bertsurat zoazin.

LUZI: Bainan gizona, ez dakit zertako hola jazartzen ziren Joseti... Lurra inkantean denaz geroz, Josetek edo beste nornahik inkanta jotzeko eskubidea ahal du.

KOXE: (*Gero eta kexuago, bere neurritan nabasia dabila*)...Inkanta!... Jo dezala, jo inkanta... Eta nik berari joko diot muturra.

LUZI: Zaude ixilik otoil!... Ez zaitela espantuka ari.

PANTXIKA: Bon, bon... Kalapitan ari gogo baduzue, ni banoa hemendik!

LUZI: Hala da-ta... Kexatu ordu, ez du beste elerik... Beti norbaiti behar diola muturra hautsi.

KOXE: Ez, zera! Utziko dut ene burua bipiltzerat, zozoa bezala, atx bat jali gabe.

LUZI: Atx egitea eta kolpe tzarrez ihardokitzea, bi dira.

PANTXIKA: Ni banoa... Ez duzue berdin lekuko beharrik, mokoka aritzeko.

KOXE: Zaude hemen, zaude Pantxika... Badakizu berdin, gure arteko erasiak, euri erauntsiak bezala direla... Laster pasatuak.

LUZI: Ba, bainan nik arrazoin... Lehen ere jandarmetan ibilia zira, kolpeka ari izanik... Zentzatzeko adinean zintezke ba.



PANTXIKA: Luzi, hago ixilik. Hi ari haiz orai saltsa nahasten.
LUZI: Lot hadi hi ere ene kontra... Ikusiko dun ezkondu-eta zoin goxo den beti su hiltzen ari behar.
KOXE: Su hiltzen ba... Maizago su pizten ba aritzen zira.
PANTXIKA: Te, oraikoan segurki ere banoa... Gibelego atetik oraino...
(Zakurra saingaz) Beha-zue nor heldu zaizuen.
LUZI: Nor?
PANTXIKA: Joset da hor... Joset berbera... Sarri artio. *(Ateratzén da)*

VI

Apur bat ixilik. Atea jotzen dute.

LUZI: Aintzinat!
JOSET: *(Hotz)* Arratsalde on, jaun andereak!
LUZI: Bai zuri ere, Joset.
JOSET: Ari zarete, ari!
KOXE: *(Hotz)* Ba, bakotxa gureari.
JOSET: Bakotxak gure gisako lanak alabainan.
KOXE: Ba... Batzuenak agerian, bestenak gordean.
JOSET: Agertzeko on denak, ez du gordetzeko beharrik.
KOXE: Ez luke segurki behar.
JOSET: Ni ere, gordeka ez ari nahiz, harat-hunat batzu agerian ezartzerat jina naiz.
KOXE: Buruz buru argitua izaitea hobe, ezenez sahetsetik.
JOSET: Gurutze landa horri uko egin dezozun galdatzerat heldu naiz.
 Moltsa haundi bat bada horren erostun eta ni nau hartua, inkanta jotzeko, bitarteko gisa. Nahi badiozu inkanta horri uko egin, suma bat esku-azpiz eskaintzen dautzut.
KOXE: Sekulan holakorik... Ez naiz ni saltsetako gizona.
JOSET: Ez da hor saltsarik, bainan tratu bat zure onetan. Edozoin gisaz, diru gehiendunak inkanta eramane du. Geldituko zira beraz deus ere gabe: Ez landa eta ez diru... Zure abantaila da geldi zaitezen, bederen suma ttipi baten jabe.
KOXE: Nahiago dut eskua hutsik eta garbi egon, ezenez eskua bete eta zikinik.
JOSET: Ni, denen peraxatzen ari naiz... Hortarat doa ene tratua.

KOXE: *(Kalapita gero eta gorago doala)* Denen peraxatzen?... Edo, ni erosiz, zuhaur ederki gizentzen?
JOSET: Ene sailak ez du gizontasuna kopatzen, bainan ohoratzen.
KOXE: Zer dituzu apostolu ele horiek?... Noiztik hunarat gizontasuna ohoratzen du, ohointza lauzkatzeak?
JOSET: Ohoina ni?... Zer ebasten dautzut zuri?... Gurutze landa ez da zurea! Ohointzarik balin bada, arrangura dadiela lurraren jabea.
KOXE: Egundainotik gure familiak landu eta ondu duen lurrak, ez ote gaitu pixka bat gu ere jabegoan partzuer? Ala zuretzat ez dira konda laneko izerdi eta urteak!
JOSET: Konda litezke lur hori bazinute ondu eta balioz azkartu... Bainan bordariak ez du hartzeko zorrik, dena sasi eta ipularre bilakatzerat utzi duen lurretik.
KOXE: *(Oibuz)* Zer dituk solas zital horiek?... Ala zer erran gogo duk? Alfer odoletik nizala?
JOSET: Ez nuk ni mintzo. Zuen obrek ditek salatzen?
KOXE: Habil kanporat hemendik, ustel zikina, edo frogatuko daiat nork duen odol gorriena zainetan, hik ala nik!
JOSET: Banihoak... Ez diat bietan erran beharrik. Ez nauk zikintegietan laketzen usatua.
KOXE: Te, te, Potzo... Huia, huia!... Ausik galtz-ipurditik!
JOSET: Ale kuxe... Hortik! *(Joset oibuz eta zakurra saingaz entzuten dira)*

VII

KOXE: Urde saltsero, tripustela... Holakoak, nik gerrenean pasa nintzake eta iduzkitan ezar idortzen.
LUZI: Zaude otoi ixilik!...
KOXE: Zer «otoi ixilik»?... Ala, zu ere ene kontra zira? *(Haurra nigarrez)*
LUZI: Ez dut deus erran zure kontra... Bakarrik, pentsatzen dudana da: Urratzea dela errexenik... Gero, peraxatzen izaiten direla lanak.
KOXE: Aski arrazoin ahal dut oldartzeko!
LUZI: Izari bat bada orotan.



KOXE: Eta, dautzut ez duela jauntto horrek inkanta eramanen, aski suma handia eskainiko baitut, ordaintzeko ere behar badut lanean porrokatu.

LUZI: Oroit zaite gu ere zurekin garela!

KOXE: Bihar berean, lana gal, auzitegirat noa... Eta, bihar arratseko, hemen izanen da, mahain hunen gainean, Gurutze landaren jabe, gu girelako agiria.

OIHALA

BIGARREN GERTALDIA

Joka-lekua:

Hiru bulego. Erdian, handi bat, sahetsetan, bi ttipi. Erdiko bulegoan, jaun bat (A) eta neskatx enplegatu batzu. Ezkerrekoan, jaun bat (B) bakarririk, zilo gibel batetik ageri. Eskuinekoan, beste jaun bat (C), hau ere zilo gibelean. Nonnahi, trufaz bezala ezarriak, paper batzu irakur daitezke, letra handi hutsez beteak. (L.A.O, V.C.E, Service, Administration eta hola-ko edozoin) Bulego horien aintzinean, bi sahetsetan badira bi ate... Bulegotarat heldu diren jendeak, batetik dira sartzen eta bestetik ateratzen.

I

Koxe sartuz, C-ri paper batzu erakusten diozka.

C: Paper hauk ez dira enetzat... Zoazi sahetseko bulego horietarat. (*Koxek A-ri erakusten diozka bere paperak*)

A: Ez dira paper hauk enetzat... Zoazi sahetseko bulegorat.

KOXE: (*Badoo B-ri paperen erakusterat. Bainan B. eskributan ari da bururik altxatu gabe... Koxek behin ez tul egiten dio, gero taula jotzen, azkenik, mintzo zaio*) Jauna, paper batzu baditut zuretzat.

B: (*Samur*) Ez duzu ikusten okupatua naizela! (*Koxe han egoiten da beba nar-datua*)

II

Uxera sartzen da eta deneri emeki so egin ondoan, badoo erdiko bulegoaren barnerat.

A: Nun zabilta, jaun uxera?

UXERA: Zuen ikusterat heldu... (*Barne bartan dabila, begi goxo batzu eginez bango neskatxari*) Zernahi lan baduzue-eta!... Ikusten dut, ikusten!... Zuek ere kanpoan nahiago hemen baino.

A: Ean, uxera jauna, zer nahi zinuen! Zure gomendio nauzu. (*Emeki, bulegotik kanporat igortzen duela*)



UXERA: Badakizu, ez dut gero nahi ene amaginarrebak jakin dezan, lur hori salmentan eman dudala.

A: Ez, ez du zure amaginarrebak deus ere jakinen. (*Anartean, C. jauna, erdiko bulegoan sarturik, ergelkerietan ari da hango neskatx batekin*) Zuk ez baduzu salatzen, ez dugu guk salatuko.

UXERA: Konprenitzen duzu!... Holakorik jakiten badu, xahu bainaiz!... Ez dut gero nahi jakin dezan...

A: Ezetz, ezetz... Ez duela pits jakinen.

UXERA: Bon beraz... Ez baitut nahi jakin dezan.

III

Kontesa sartzen da, xakur bat arropatua, sokatik duela.

KONTESA: Ene paperak prest direa?

A: Ez dira oraino prest anderea.

KONTESA: Andere kontesa: Kontes de Kontesa Marabillosa. (*Uxerak kontesa begiz jan nahi du*) Zer duzu zuk, hola eni so egiteko?

UXERA: Bai... Kontesa pollita!

KONTESA: (*Samur*) Galdetzen dautzut errespetua, bestenaz erakutsiko dautzut, nik, nor naizen.

UXERA: Bai... Kontes de Kontesa Marabillosa, bainan moltsa hutsa. Bere mubleen sesia nik egina diot... Zorrrak ez zituen-eta pagatzen. (*Irri mehar bat*)

KONTESA: (*Samur*) Gezurra diozu hori... Gezurra! Zaren bezalako jaun tutula zu!... Beti edarian sartua.

UXERA: Bai!... Zuk ere, ahal bazinu, edan zinezake ba...

KONTESA: (*A-ri mintzo*) Jauna, lekuko hartzen zaitut gizon hunek errespetua galdu dautala...

A: Ezti zaite otoi, anderea!...

KONTESA: Andere Kontesa, eta ez Anderea... Nun da zuen buruzagi nautsia?... Hura nahi dut mintzatu... Ene adixkidea baita... Iku-siko dugu ean, haren aintzinean hoin harro agertuko zirezen.

A: Nik ez dautzut errespeturik galdu, anderea.

KONTESA: Andere Kontesa.

UXERA: (*Trufaz*) Ba, Marabillosa.

A: Gure jaun buruzagia ez da hemen.

KONTESA: Telefona-ozue, ene partez, segidan etor dadien.

A: Ez dakigu nun den... Aski duzu sarrixago berriz etortzea.

KONTESA: Segur etorriko bainaiz, eta ikusiko dugu nork izanen duen azken hitza... Eta zuk ere bai, ikusiko duzu, jaun «arno zipotia!» (*Ateratzzen da, errabian*)

UXERA: (*Irri egin ondoan, A-ri mintzo*) Hurbil zaite hunarat. (*Beharrit mintzo*) Ez gero deusez sala ene amaginarrebari.

A: Ezetz, gizona, ezetz.

UXERA: Bon, bon... Ontsa da... Banoa... Banoa!...

A: Ba, ba, zoaz!

UXERA: Eta, bestaldi bat artio. (*Ateratzzen da*)

A: Ba, bal... Nahi duzun artio. (*Anartean, C. jauna itzuli da bere tokirat. Koxe kezu da... Taula jotzen du*)

B: (*Heldu zaió, frango mokorrean*) Ez zaitut ahantzia ez!... Zer nahi zinuen?

KOXE: Jakin nahi nuke zer ageri behar den hunarat ekarri, etxe berri baten altxatzeko, diru laguntza ukan dezadan.

B: Ontsa da. (*Badoo paper bat hartzerat*) Huna zer paper behar duzun fornitut, nahi baduzu diru laguntza hori ardietsi. Lehenik, zure laneko nausiari galde-zozu iragan urteko irabazi guzien ageria, bere sinadura eta tanponarekin... Ageri hortan ezar ditzala ere, zure laneko egunak eta orenak... Eta ere, ean diruz bestalde, laguntza edo abantailik ukan duzun haren ganik. Bigarrenekorik, geldi-denbora pagatuak, zonbat izan dituzun eta noiz, ageria behar dugu... Ageri hori eman dautzu geldi-denbora pagatuen moltseroak. Hirugarrenekorik, egon bazira langabezian, ageria behar dugu, noizetik noizerat egon ziren eta zonbat hunkitu duzun denbora hautan... Ageri hori galda-ozute langaben bulegokoeri. (*Emazte tindatu duda-mudazko bat sartzen da, C-renganat joaiten eta harekin soberasko hurbilki gurutzatzen... Erdiko bulegoan, C-ren neskatx «adixkidea» ez dagoke bere tokian... Jelos da*) Laugarrenekorik, familien alokazionetako bulegoan galdatuko duzu ageria, zer ukan duzun zure haurrentzat eta zer zure emaztearentzat, edo eri zelakotz eta haur ukaitetz etxean egon delakotz. Bosgarrenekorik, zergetako bulegotik jaliko duzu ageria, hau paper tinbratu berezian, erranen duena zonbat zerga pagatu duzun, zertaz jabe ziren, titre edo iduzkiko ontasan.



- KOXE:** Bainan, jauna, burutik joaitekoa bada paper tzar horien guzien ondotik behar badut abiatu.
- NESKA:** (*Delako neskatx «adiskidea», bizji-bizjia xutiturik badoa C-ren aintzinerat... Goxotasunik gabe pusatzen du bere kontrarioa*) Barkatu anderea!... (*Papera sinarazten dio C-ri, begiz erretzen du etsaia eta bere tokirat doa*)
- B:** Seigarren paperean naiz... Badira oraino beste bederatzi fornitzeko... orotarar hamabost.
- KOXE:** (*Kexu*) Jendetaz trufatzea da, aipatzea ere laguntzen duzuela etxegintzako obretan.
- B:** Legea hola da... Nik deus ez dezaket... Arrangura zaite lege egileari.
- KOXE:** Badu hiru hilabete, erditan lana galduz, paperketan nabilela bulegoz bulego... Jadanik eskorga bat paper badut forniturik... Eta heien ukaiteko, diru alde pollit bat xahuturik... Lepo zintzurreraino asea naiz zuen trafikua.
- B:** Ez da gure trafikua... Gu mutil gira.
- KOXE:** Mutil ba, bainan ere trafiku huntaz baliatzaile...
- B:** Zer abantail dugu guk, lana hola izan dadien, eta ez bestela?
- KOXE:** Paper tzar gehiago eta zuen nonbrea handiago behar baita heien ibiltzeko... Zuen nonbrea handiago eta zuen larderia ere azkarrago... Lan debaldez zirezte kargatuak eta ez lan beharrezkoez... Nahi bazinute denen ongia eta ez zuen baliamen hutsa, aspaldian jats kolpe on bat emana izanen zintuten zuen lanmolde eta paper askori.
- B:** Ez da hau mokokan aritzeko lekua eta ez dut nik mokokan aritzeko astirik. (*Irakurtuz*) Zazpigarren papera... ekarriko duzu oraino zure biziaren gainean hartu asurantzako papera...
- KOXE:** Ez du balio denborarik gal dezagun paper horren irakurtzen... Ekazu hori eta eremanen diot jaun merari, orainokoak bezala.
- B:** Zuharek ikus!... Ori papera.
- KOXE:** Ongi da. Jaun meraren eskuetan pausatuko dut. (*Ateratzen da... C-ren eta «anderearen» arteko gurutzamenak bururatzen dira mila goxokerietan eta «anderea» ateratzen da... C. jauna badoa erdiko bulegorat neskaenganat... Hau nabi luke balakatu, bainan oldartzen zaio... C. jauna samurtzen da eta berriz itzultzen bere lantokitirat... Neska orduan, hipaka nigarrez hasten da*)

V

- JOSET:** (*Sartuz, C-ri mintzo*) Eta?... Zertan dira ene paperak?
- C:** Zer paper, jauna?
- JOSET:** Zer paper!... (*Kexu*) Etxe egiteko paperak, dudarik gabe!
- C:** Ha, ba!... Ba... Bainan eskas ziren zorbait.
- JOSET:** Zer, zorbait eskas zirela? Hiru hilabetez ari izan naiz forni eta forni, zuk galde ahala, eta zuhaurek erran zinautan oro hor zinituela.
- C:** Ha, ba... Ekarki zinuena elektrika buruzagiaren baimena?...
- JOSET:** Ba, ekarki nuen.
- C:** Eta, bidetako buruzagiena.
- JOSET:** Bai eta ere... Trein bidetakoena ere ba.
- C:** Eta, lekuko edergailuen zaintzaleen baimena?
- JOSET:** Bai eta ere.
- C:** Herriko etxekoa?
- JOSET:** Bai eta ere.
- C:** Etxearen planak, hiru andanetan?
- JOSET:** Bai eta ere.
- C:** Etxea zuretzat bizitegi nahi duzulako ageria.
- JOSET:** Bai eta ere!
- C:** Zure familiako menbro guzien sort-paperak?
- JOSET:** Bai eta ere.
- C:** Beste etxerik ez duzelako ageria?
- JOSET:** Bai eta ere.
- C:** Etxe egin behar duzunaren inguruko lekuen planak.
- JOSET:** Bai eta ere.
- C:** Lurraren jabe zirelako ageria?
- JOSET:** Bai eta ere.
- C:** Zer zerga pagatzen duzun ageria?
- JOSET:** Bai eta ere.
- C:** Etxeko zerbitzuak nola egingo dituzun planak?
- JOSET:** Bai eta ere.
- C:** Orduan beharrenak bederen fornituak dituzu.
- JOSET:** Badakit fornituak ditudala, bainan orai nahi nuke lantegiaren identitzeko baimena...



C: Bainan hori ez dugu guk emaiten, eta paper horiek gure aintzinekoeri igorriak ditugu, eta behar duzu egon hango erreputaren aiduru...

JOSET: Izatu naiz zuen aintzinekoetarat... Handik heldu naiz... Ez omen dute beren bulegoan, ene paper demendrenik.

C: Ha!... Nola daiteke ba hori?...

JOSET: Paperak igorriak?... Gezurra diozue... Ez dituzue ene paperak igorri... Hemen daukazue nonbait.

C: Ez, hemen ez da zure paperik... Segur naiz igorriak ditugula.

JOSET: Igorriak izan balire han izanen ziren... Mia-zkitzue zuen papertegi horiek.

C: Ez du balio mia ditzadan... Badakit igorriak ditugula... Han behar dituzu miarazi eta ez hemen.

JOSET: Han ba!... Izan banintz neskatz bat, miatuko zinituen ba hemen ere eta paper horietaz hobeki arta hartuko zinu. (*Gero eta samurrago mintzo*)

C: Otoi, jauna!... Neskatz edo beste, hemen lana denentzat berdin egiten dugu.

JOSET: Ez da hori egia... Nolaz ba, lur berean, etxe egiteko ezetza eni eman dautazue eta baia ematen diozue Koxe harginari?

C: Koxe harginak ez du oraino baimenik ukan. Galdezka ari da...

JOSET: Nahi duzuen egiten duzue barne huntan... Giderdunentzat legea hauts eta gidergabeentzat, legea tinka... Atxemanen ditut nik ere aski gider handiko gizonak, eta, ene paperak ez badira laster nonbaitik agertzen, jakin-azue dantzatu beharko duzuela... Zortzi egun emaiten daukizuet... (*Ateratzen da*)

VI

C: (*Badoa erdiko bulegoratz... Hango enplegatueri mintzo zaiote*)...Errazue, gizon horren paperak igorri zinituzten bederen?... Ala, beti hemen dira? (*Neska mutur dago... Beste enplegatu bat badoa papertegirat miatzerat*)

ENPLEGATUA: ...Ez dira igorriak... Huna, hemen dira.

C: (*Samur*) Ho!... Errana nautzuen ba berehala igortzeko... Horra nola gertatzen diren gero saltsa eta nahaskeriak....

ENPLEGATUA: Bon, igorriko ditugu berehala...

C: Igor-zkitzu otoi, berant bada berant.

VII

Pantxika badoa B-renganat.... Hunek noizbait solas ematen dio.

B: Zer nahi zinu?...

PANTXIKA: Paper batzu nola bete behar ditudan galdatzerat etorria nintzen.

B: (*Paperak ikusiz*) Ez dira hauk nik betetzekoak...

PANTXIKA: Nork lagunduko nau ba horietan konprenitzen?

B: Galde-ozute sahetseko horieri.

PANTXIKA: (*Badoa erdiko bulegoratz... Neskak begiz segitzen du bere tokitik*) Paper batzuentzat heldu nintzen...

A: (*Paperak hartuz*) Zer nahi zinu? paper hauekin?

PANTXIKA: Ez dakizkit nola bete... Nahi nuke laguntzen baninduzu.

A: Ean ba!... Zer ez duzu konprenitzen?

PANTXIKA: Hunako lerro huntan, galdea da ean deus ontasun moten jabe naizen?... Nik baditut muble batzu eneak, diru pixka bat ere eta bertze gauza batzu...

A: Ho, ba... Nekez dira horiek aipatu behar... Nik uste, iduzkiko ontasunik baduzun da galdea...

PANTXIKA: Ez dakit-eta... Beheraxago preseski hortaz bada galde bat... So egizul!... Ean deus lur edo etxeren jabe naizen!... Nekez dute eginen bietan galde bera.

A: Hori ere hala da... Zaude. (*Irakur eta berri irakur, gogoetak egiten ditu*) Gaixoa, ez dakit zer ihardets...

PANTXIKA: Zuek ez jakitekotan, nola nahi duzue nik jakitea?...

A: Zaude. (*Berri ere ari da irakur eta irakur*) Ez... Ez dut ikusten... (*C erakutsiz*) Zoaz horrenganatz... Beharbada horrek argituko zaitu. (*Pantxika, paperak bilduz, abiatzen da C-ri buruz... Bainan, Neska brau xutitu da eta moztzen dio bidea*)

NESKA: (*Kopeta txarrean*) Zer nahi zinu?...

PANTXIKA: Argitasun zombait nahi nituzke.

NESKA: Nola duzu izena?



A: (*Neskari fermuki mintzo*) Otoi, utz-azu bere bidean... Ez da horren lana zuk egitekoal... Zuk segi-azu zureari. (*Neska badoa bere tokirat... Jelosiaz urtua Pantsika ez du begietarik galtzen*)

PANTXIKA: (*C-ri mintzo*) Nahi nuke laguntzen baninduzu paper hauen betetzen.

C: (*Grazia hoberenarekin*) Bietan plazer izanen dut zu laguntzea: Zuri zer-bitzu egiteagatik eta neskatz pollit bat zirelaketz.

PANTXIKA: Nahi nuke jakin zer errepusta behar dudan eman hemengo lerro batzueri. (*Papera erakusten dio*)

C: (*Papera ixilik irakurtzen du*) Ez zira, nik uste, oto baten jabe?

PANTXIKA: Ez jauna!

C: Ez... Otoan ibiltzen, bainan jaun gazte eder batenean... (*Irriz*) Ez dea hala?

PANTXIKA: Tronpatzen zira... Serorgaia naiz!

C: Hum!... Ez dakit haatik hori arras hola den... (*Neska brau xutitzen da, kanporat joaiteko arropen bezititzen eta nigarrez ateratzen... Laneako lagunak, irriz eta keinuka ari dira elgarren artean*) Nik ez zaituta ikusi, joan den igandean, zinemako atean gazte batekin!... Hee!

PANTXIKA: (*Motz*) Jauna, paperen betetzerat etorria naiz.

C: (*Irriak sartuz*) Bon, bon... Ontsa da... Galdatzen duzun xehetasun hau, xuxen xuxenenik, zerga biltzaleen bulegoan ukanen duzu... Aski duzu harat joaitea...

PANTXIKA: (*Motz*) Ongi da... Banoa. (*Ateratzen da*)

VIII

UXERA: (*Sartuz... C-ri mintzo, irriño txar batekin*) Zer zuen beste harek nigarrez? (*C-k ez dio ibardesten. Uxera badoa erdiko bulegoratu. Nahi luke ban sartu*)

A: Ez sar, uxera jauna! Lanez itoak gira... Geroxago izaitekotz...

UXERA: (*A-ri mintzo*) Oroit gero! Ez ene amaginarrebari deus sala...

A: (*Ez dio kasurik egiten. Bainan, kanporat so egin ondoan, Enplegatuari abapetik*) Hor heldu da gizon bat, ikusi nahi ez dudana... Errozu ez naizela hemen. (*Ateratzen da*)

ARTZAINA: (*Sartuz*) Agur, jaun andereak!

UXERA: Agur, agur, jauna! (*Beste nebork ez dio ibardesten*)

ARTZAINA: Nun da bulego huntako gizona!

UXERA: Oraintxet hemen zen!...

ARTZAINA: Zer da?... Ni ikusi-eta gorde?

ENPLEGATUA: Ateraia da...

ARTZAINA: Luzeentzat!...

ENPLEGATUA: Ez dakigu.

ARTZAINA: Bon... Egonen gira goait, usaiaren ez galtzeko.

UXERA: Zu artzaina zira?

ARTZAINA: Bai jauna eta zu uxera... Zu etorri zinen, paper txar bat eskuan, auzitegirat joan nadien...

UXERA: Ba, igorri ninduten... Nik, manatu lana egin nuen.

ARTZAINA: Ez omen nuen dretxorik, bulegotako jaunen baimenik gabe, ene ardientzat borda txar baten altxatzeko, han, gure mendi zokoetan... Eta, xuhur banuen, behar nuen desegin hasi lana.

UXERA: Ba, akort naiz... Eta, nola antolatu zinezten?

ARTZAINA: Antolatu?... Zikiro izter batekin... Edo bederen, uste nuen antolatu ginela... Bainan ez omen... Beste paper bat igorri daute atzo, eta, xuriketen egiterat etorria naiz, paper hori sakelan.

UXERA: (*Irri mehar batekin*) Nindagon ba, zu, tenore huntan hemen ikusi-eta, ez ote zinen bederen bulegotan lanean hasia.

ARTZAINA: Hobe nuke ba naski, bainan ez naiz hortako aski alferra eta aitamek ez zaitaten behinere ikasi besteen bizkar bizitzen.

UXERA: Ba, haatik bazinuke buruhauste horko eskribatzeko mekanika hortan zure eriak trebatu artio.

ARTZAINA: Zer da, ttpa ttpa botoin horien jotzea!... Berdin ikas neza-ke nik, hortan ere, hor ari direnak artzaingoa ikas lezaketen baino lehenago.

UXERA: Bai eta horiek, buru fuinetan duten jakitatea, noizko munta zinezake?

ARTZAINA: Beren jakitate aberatsena, horiek ere, hor daukate ba, liburu pila horietan, beren buru fuinetan baino segurago... Eta, beren burua xorokeriz beteago dute funtsez baino, bestenaz ez zautaten sakelan dudana papera igorriko. (*Kontesa sartzen da bere xakurrarekin*)

UXERA: (*Irriz trufaz*) Horra, horra beste!... Artzain xakur baten beharretan bazira, huna hemen bat pollita...

ARTZAINA: (*Irriz*) Urrixa da ala orotsa?



UXERA: Ez da errex jakitea duen arroparekin.

ARTZAINA: Iduri dik oraiko jendetarik... Ez zakik gehiago zoin diren ardiak eta zoin marroak.

KONTESA: (*Samur*) Ene xakurra errespetatuko duzue gero?

ARTZAINA: Ba, emaztekoa ba... Ez diogu lumeroa kendu nahi... Ikusi nahi bakarrik.

KONTESA: Ziren bezalako gizon larri gaizki ikasia, zu!... Jakin-azu ni naitzela: Kontes de Kontesa Marabillosa.

ARTZAINA: (*Irriz*) Ezagun duzu segurki, ez zarela Larrebordako Tatalin... Ez zinueke zakur troxatzen denborarik galduko.

KONTESA: Ho... Hori soberakina da haatik... Nun da bulegoko nausia?.. Nun?...

ENPLEGATUA: Jalia da... Ez dakit norat joana den...

KONTESA: Bon, ekazu telefona! Telefonatuko diot ba nik den tokirat.

ARTZAINA: Telefonatzen ahal diozu, ene partez ere, jin dadien.

ENPLEGATUA: Telefonak ez du kurritzen...

KONTESA: (*Burutik joana, mintzo da B-ri*) Ho, ho... Jauna, entzun duzu gizon peste hori!... Galdatzen dautzut kanporat mana dezazun hemendik.

B: (*Gaxtoki*) Bakea eni... Nik etxean manatzen dut, eta ez auzoan!...

KONTESA: (*Beti errabian, badoa C-renganat... Hunek irriño bat egiten dio*) Ho, jauna, zuk bederen!... (*Bainan urriki bezala du hari solas emanik*) ...Ez, ez... Ez dautzut pitsik galdatzen... Ez dut zutaraino jautsi nahi... (*Oihuñ deneri*) Bainan, ukanen duzue ene berri... Ene berri! (*Ateratzzen da. Oro irriz ari dira*)

ARTZAINA: Bon, horiek hola arras ontsa, bainan ez naiz ni hunarat etorria irriz asetzerat. (*Enpleguari mintzo eta paper bat erakutsiz*) Hurbil zaite hunarat... So egizu... Paper hunek dio, ene borda ez badut erroitik aurtikitzen zortzi egunak barne, auzitegirat deitua izanen naizela... Ez dea paper hau zuek igorria?

ENPLEGATUA: Ba hala da... Hemengo nausiaren sinadura du.

ARTZAINA: (*Samur*) Nolaz du zuen nausiak kopeta paper hau eni igortzeko?... Ez du zortzi egun, berarekin buruz buru egon nintzela... Zikiro azpiki bat ekarri nion saritzat... Zikiro azpiki bat... ba... Ez kexatzeko (*Uxera ibesi doa kanporat*) ene bordarentzat, erran zautan... Borda hortaz jinen ziren paperak, surat aurtikiko zituela... Nun dira orduko solasak? Zer da komedia hau?

ENPLEGATUA: Nik ez dakit... Ni langile naiz hemen...

ARTZAINA: (*Gero ta samurrago*) Beti gauza bera da zuen bulegotan... Paper tzar baten igortzeko, mila bazarete, eta, paper hura zuen gain hartzeko, nehor ez zarete... Barnean eta beroki, gu kanpoan lehertuak lanean ari girenen izerdiz bizi zarete... Eta, gure bizkar bizitzea ez zaitzue aski... Nahi gaituzue oraino... larrutu... Ez zarete ahalge ere!

ENPLEGATUA: Ofizio guziek badituzte beren gorabeherak, eta, lan mota bakotzak egiten du, bere gisan, zerbitzu!

ARTZAINA: Zuen lanak, zueri ba egiten du zerbitzu, bainan beste nehor gutiri... Zuek bezalako jendeak, nik, denak trein handi batean karga nitzake eta debruetarat igor... Ez dugu zuen beharrik gure gasnen jateko... Guhaur aski gira hortako.

ENPLEGATUA: Solas horiek hemen debalde dira... Gu baino goragotik heldu da makurra, makurrik balin bada...

ARTZAINA: Preseski, ez nintzen horien zuri erraiterat jina, bainan zure nausiari... Salatuko diozkazu ene partez... Eta zuen pape-rez, huna zer egiten dudan. (*Papera porroskatzen du*) Eta, nausiari erranen diozu oraino, xuhur badu ez eni gehiago holako paperik igortzeko, edo bestenaz, bizkarra berotuko diotala makila hunekin!... Makila hunekin!... Eta... adiorik ez! (*Ateratzzen da*)

X

A sartzen da.

ENPLEGATUA: Entzun duzu, dudarik gabe, jauna!

A: Ba, entzun dut... Aski nardatua bainaiz. Hitzemana nion ahal nuena egingen nuela bere bordaren alde... Bainan goragotik etorri zait manua... Legea lege dela... Horrentzat bestentzat bezala... Beraz, borda hori ez dezaten onart.

ENPLEGATUA: Eta, oraí, zer egin behar dugu?

A: Ez dakit... Izanen dugu lan, urratuen peraxatzen.



XI

MERA: (*Sartuz*) Agur, jaun andreak!

A: Agur, jaun mera!... Zuk, kopetatik ageri duzu, berri txarrez zabiltzala.

MERA: Ba, kexu naiz... Ez dut gordetzen... Jendeak etxe berri egiterat pusatzen ditugu... Baietz ba, lot daiten lanari... Lagunduko ditugula. Eta denenganik arrangura bera entzuten dugu... Ez dituzuela laguntzen... Izaitekotz paper pean lehertzen, eta beren gain zerbait lotzetik, betikotz desgustatzen.

A: Nor dituzu arranguratzaleak?

MERA: Doidoia, ero baten pare, herriko etxetik jalia zaut Koxe hargina.

A: Koxe harginak, erosi duen Gurutze landan, ez du aski eremu, etxe baten altxatzeko. Zabaldura eskas du zerbitzuetako ixurgientzat.

MERA: Zerbitzuetako ixurgiak?... Inguruko larre guziak ez ote ditu han?... Norat ixuriko dira hobeki haren zerbitzuak?

A: Legeak galdatzen ditu ixurgiak joan daiten herriko kanaletarat edo, bakotzak nahi badu bere zilo berezia muntatu, hortakotz izan dezan aski eremu...

MERA: Gurutze landako kartiereko etxek ez dute, ez kanalik, ez zilo berezirik... Heien ixurgiak ongarrri metarat doatzi... Ez ote dezake gauza bera egin Koxe harginak?...

A: Lehen hala zen, eta orai bestela... Legea lege da...

MERA: Legea lege nahi dut... Bainan hirikotz on dena, ez da baitezpada kanpañakotz on... Tokian tokiko gisa behar du legeak baliatu...

PANTXIKA: (*Hats bantua sartuz*) Fite, jaun mera, fite!...

MERA: Zer da?... Zer gertatzen da?

PANTXIKA: Ene koinadoak burua galdu du... Jende guziak hil nahi ditu plazan... Otoi, zato fite!

MERA: Zer?... Koxe harginak?

PANTXIKA: Ba... Koxe harginak ba!

MERA: Ha debrua!... Ez nian beste beldurrik... Goazen... (*Ateratuz*) Paper madarikatuak!... Madarikatuak!...

OIHALA

HIRUGARREN GERTALDIA

Joka-lekua:

Herriko etxeko barnea.

I

MERA: (*Bakarrik. Iduri du kexu*) Aintzinat!... Aintzinat ba, erranez geroz!

LUZI: (*Biziki penaz joa da... Arteka nigarra heldu zaio*) Agur, jaun mera!

MERA: Ha, zu zinema!... Agur, Luzi... Zer berri duzue? Nola iragan du gaua?

LUZI: Frango eztiki, jaun mera, bainan, atzartzen zen aldi guziz, bere paperak aipatuz.

MERA: Paper madarikatuak!

LUZI: Ha, ez dakizu zer den, jaun mera!... Paper horietan hasiz geroz, gure etxea ifernu bat da. Beti zerbait eskas... Beti bulegoz bulego ibili behar... Hunek «zato bihar», harek «gero erranen».

MERA: Badakit segurki horien berri... Gauza bera da herriko aferentzat joaiten girelarik horietarat.

LUZI: Eta denak pagatuz... Zernahitako eri puntetan diruarekin joan behar. Etxe altxatzeko bildu ginuen diru pizarra, paperetan urtzen ari zaigu.

MERA: Ez naiz harritzen.

LUZI: Gehiago dena, ene senarra, frangotan lana galduz da hola ibili paperketan. Atzo ere, arratsaldea gal, joana zen bulegorat... Deus bururatu gabe, errabian heldu zelarik, nausia bidean aurkitu du... Eta hunek lantegitik despeida eman dio, erranez: «Ez diat nik beti piaietan dabilan langile beharrik». Eta orduan da erotu ene senarra eta deneri lotu joka, oro hil nahiz.

MERA: Nausiak ere, bere arrazoinak!

LUZI: Bixtan dena... Ez naiz ez hari jazar... Bainan orai zureganat, kontseiluketarat etorria nintzen, jakin nahiz behar dugun paperketan aintzinat ibili edo ez ote liteken hobe etxe berriari uko egitea...



MERA: (*Fermuki*) Uko egin?... Holakorik ez, ni mera hemen izanen naizen... Leporaino asea bainaiz, paper ibiltzale gizon horietaz, hiru bulegotako nagusiak hunarat deituak ditut... Hemen izanen dira apur baten buruan. Errango diozkatet berenak eta asto beltzarenak!... Zure senarra etortzen ahal balitz, denak betan mintza gintezke.

LUZI: Ez dakit mirikuak nahiko duen etor dadien.

MERA: Zaude... Berehala telefonatuko diot mirikuari. (*Telefonatu*) Alo... Alo... Jaun mirikua... Ene errespetuak... Hemen jaun mera... Atzoko eri hortaz zerbait nahi nuke jakin... Bon... hobe... Ba, ba... Errazu, jaun mirikua, apur baten buruan baginuke hemen berean bilkuraxka bat, eri horren paperen xuxentzeko... Uste duzu hunaraino etor ditakela?... Ba, ba... Bixtan da... Eztiki hartuz ba... Baitezpadakoa ez, bainan hobe haatik bera hemen izan dadien... Zuhaur etorriko harekin?... Bon, ongi... Zato ba Koxekin... Hola, gu ere deskantsuago izanen gira... Ba, apur bat artio, jaun mirikua... (*Luziri*) Bon, entzun duzu... Mirikuak berak segituko du hunarat...

LUZI: Milesker jaun mera!

MERA: Zoaz berehala etxerat eta hiruak betan etorriko zarete hunarat!

LUZI: Ixtante artio, beraz! (*Ateratzen da*)

MERA: Ba, ixtante artio.

II

MERA: (*Bere paperetan, apur bat*) Sar, sar. Aintzinat!

ARTZAINA: (*Errabian*) Jaun mera, herri huntan gizonik badenetz jakiterat heldu naiz.

MERA: Zer erran nahi duzu?

ARTZAINA: Erran nahi dut, jandarmak hor nituela, goiz huntan, auzitegirat joaiteko paperekin...

MERA: Auzitegirat? Zer egin duzu?

ARTZAINA: Zer egin?... Pitsik, zuk errana baizik. Zuk kontseilatuz bezala, ene ardi borda altxatu nuen, paperik ekarri gabe bulegotako jauntto horieri... Horra ene krima.

MERA: Eta, izan zinena bulegoko nausiarenganat?...

ARTZAINA: Ba, izan nintzen... Zikiro azpiki batekin oraino... Zikiro azpikia onartu dute, bainan ene borda, ez!...

MERA: (*Samur*) Bulegoko jaunarekin, elgar adituak ginen, bakea ukan dezazun... Zer dabilta orai ondolik?

ARTZAINA: Nahiago dute beren hitza jan, ezenez beren lana galdu... Hiritako jaun buruzagi handiek ez omen dute ene borda onartzen.

MERA: Zertako behar zuten hiritako jaunetarat joan holako pilixtakerientzat?... Aski zuten begiak hestea eta hortaz heldu ziren paperak, surat aurtikitzea...

ARTZAINA: Ba, bainan beldur omen dira norbaitek sala ditzan...

MERA: Beldur, beldur! Kakolakeriak egiteko ez dira haatik beldur... Bon... Apur baten buruan, hunarat jitekoak baititut bulegotako jaun horiek, egonen zira otoi heien aiduru ate giblean... Sar araziko zaitut etorriko direlarik, eta heiekin bekoz beko mintzatuko gira.

ARTZAINA: Ontsa da, jaun mera.

MERA: Eta hemen naizen bezen segur, edo beharko dute afera hori zure alde xuxendu edo ene herriko kargua beste norbaitek har dezala...

ARTZAINA: Milesker jaun mera. (*Ateratzen da*)

III

MERA: Sar zaitte, Pantxika... Zure aldi da...

PANTXIKA: (*Sartuz*) Agur, jaun mera...

MERA: Egun on, Pantxika... Zertan zira zure paperekin?...

PANTXIKA: Beti bil eta bil... Berriz ere zure nardatzerat heldu naiz.

MERA: Ez nauzu den gutienik nardatzen... Zure zerbitzuko naiz.

PANTXIKA: Ene aita eta amen ezkontzako papera galdatzen dautate, orai berriz.

MERA: Papera, beti papera!

PANTXIKA: Ba, eta gainerat, grazia ona balute bederen bulego horietan?

MERA: Zer dute irriñoa kario?

PANTXIKA: Batzuek ba!... Bestek aldiz sobera merke, bereziki neskatxa gazte bat joaiten zaiotelarik...

MERA: Hori ere badugu?



PANTXIKA: Ba, badira ene lagunak ez dutenak gehiago joan nahi zontzaitenganat... Hastekotz, bakarrik direlarik bulegoan. Nahi baduzu heien gutzietarat lerratu, oro ukaiten dituzu... Bestenaz, pitsik...

MERA: Pitsik, salbu heien errespetua eta estimua.

PANTXIKA: Ba, bainan, ez haatik heien laguntza. (*Kanpoan, arrabots eta oihu*)

ARTZAINA: (*Oihuz, ikusi gabe entzuten da*) Papera duk, oraino, papera!... Urde mozkor xoroa, hil!... Emanen daiat papera, nik, makil hunekin bizkarra berotuz!

MERA: (*Atea idekiz*) Zer gertatzen da hemen?... Zer dira oihu hauk?

ARTZAINA: (*Sartzen da, Uxera papotik tinkatzen duela*) Berriz ere paperekin heldu zait, alfer zikin hau... Sinadura bat behar omen du, hori ekartzea sari. Eman diot nik sinadura, uspel tintaz, bizkar konkorrean, ardieri bezala.

MERA: (*Fermuki*) Ezti zaitte, alo gizona!... Zato hunarat. (*Kanporat berekin eramaki du*) Oroit zaitte nori jazar ziren.

ARTZAINA: Urdea... Urdea. (*Merarekin nabasteka mintzo da*)

UXERA: (*Jartzen da*) Phu! Zer tinkaldia... Ez ditu eskuak horrek, bainan burdinak beso muturretan... Haizea, otoi ekazu haizea!... Phu!

PANTXIKA: Nahi duzu zure etxekoen abisatzea?

UXERA: Ez, ez... Atsegin har lezake ene andreak, eta bietan atsegin amagarrebak. Phu!... Egin-azu egin haize... Zuk baino hobeki nehorik ez nau sendatuko. (*Haize egiten dio*) Hola ba, hola!... (*Nahi lituzke Pantxikaren eskuak tinkatu*)

PANTXIKA: Ha, zu ere, besteen gainerat!

MERA: (*Sartuz*) Barka-zozu, jaun uxera... Kexadura zaio gaintu...

UXERA: Ba... Bainan, papera sinatzeko orde, porroskatu baitu haatik...

MERA: Berdin du... Laster, hemen beharrak baitituz paper horren igortzaleak, heiekin makurbide hau xuxenduko dut...

UXERA: Behar luke Artzainak konprenitu, ez dutala papera nik igortzen... Ekartzen bakarrik...

MERA: Ba... Konpreni arazia diot... Erretiratzen ahal zira. (*Uxera badoa kontrako aterat*) Ez hortarik ez... Hori sekretario bulegoa duzu...

UXERA: Badakit ba... Ez dut segur beste hortarik atera gogo... Aski tinkatu ahal daut lepoa horko horrek... Behin ba, bainan bietan ez, jaun mera!

MERA: Bon, bon... Egizu iduritzen zautzun bezala.

UXERA: Ez dut nehorik erraite beharrik... (*Ateratzen da*)

MERA: (*Pantxikari*) Zuk ere, galde-ozu zure papera, sekretario jaunari, eta otoi, zaude atean Artzainarekin... Apur baten buruan, hor izanen baitira ere zure ahizpa eta koinadoa, denek betan biltzarre tipi bat egingen dugu, hemen berean.

PANTXIKA: Ongi da, jaun mera. (*Ateratzen da*)

MERA: (*Atea idekiz*) Ean orai noren aldi den!

JOSET: (*Sartuz Beronikarekin*) Gu izan behar gira, bakarrak eta azkenak.

MERA: Jar zaitzte...

JOSET: (*Samur*) Ez... Erraitekoak nahiago ditut zutik erran. (*Gero eta gorago mintzo*)

BERONIKA: Otoi, Joset, ari zaitte ezteki.

MERA: Mintza zaitte... Entzuten zaitut.

JOSET: Etxe berri bat altxatzen abiatu naiz, zuk hala kontseilaturik... Aisetasun zernahi behar omen ginuen. Lanari lotu banaiz lotu, hilikiaren usainetarat mila alimale tzar hurbiltzen diren bezala, eni ere, mila diru jabe hurbildu zauzkit... Denek beren erraitekoa omen dute ene etxeaz... Denek hor ari naute turrintzen. Gasna nola baita harrentzat, hala bilakatua naiz ni heientzat.

MERA: Zer nahi duzu nik egin dezadan?

JOSET: Zu eta zu iduriko kargudunak zarete makurbide horren hobendun.

BERONIKA: Otoi, Joset, emekixago...

JOSET: Zuk, bakea eni!

MERA: Ha, nahi nuke jakin nik zer hoben dudan bulegotako enpleguak badira jendetaz hazten.

JOSET: Bulego horietako enpleguak langile batzu dira... Langile horiek badituzte beren nausiak... Horien nausiak dira, guk, gure bozkatez hautatu gizonak. Zuk eta, zu bezala, beste guk hautatu gizonak dituzte manatzen enplegu horien nonbrea eta horien lana... Zuek zarete beraz hobendun langile horien soberakinaz eta horien ezin asezkoko joko higuinaz.

BERONIKA: Otoi, Joset!

JOSET: Emaztekoa, ez banuzu entzun nahi, aski duzu kanporat joaitea!

MERA: Nik, ene meneko ditudan langileak, dira, bakarrik, herriko langileak: Hemengo sekretarioa, bidezainak eta beste... Etxegintzaz okupatzen diren enpleguen nausia, mia-azu ez hemen, bainan goragoko mailetan.



JOSET: Ba, sobera errex da, dena goragoko buruzagi handien gain emaittea... Urruneko buruzagiek guti indar lukete gure eskualdean, hemengo buruzagiek hortzak pixka bat gehiago erakusten bazinituzte. Bainan, zuen ahuleziarengatik, beti amen eta amen erraiten duzuelakotz, ez deus bilakatuak zarete... Pits ez zarete, pitsik... Pitsika baino gutiago: Esku baitiozute emaiten urruneko buruzagieri, hemen gaindi nahi dutenaren egiteko.

MERA: (*Xutituz*) Bon, aski solas badugu ibilirik... Horiek guziak eder dira, bainan gaur egin dezagun gaurkoa... Ez da gizona bizi behar ukanarekin, bainan duenarekin.

BERONIKA: Zato, Joset, zato... Goazen...

JOSET: Bai, gizona, duenarekin bizi da, bainan behar lukena, ez luke gogotik galdu behar... Are gutiago, ez lioke uko egin behar.

BERONIKA: Bon, agur jaun mera... Bagoatzi... Zato, Joset...

JOSET: (*Arras kexu, ateratuz*) Baietz, baietz... Zer debru ba, zu ere!...

MERA: (*Bakarrik... Besoak altxatuz*) Ba... Eta horiek, hola direnak... Arrazoin dik gizon horrek.

V

MEDIKUA: (*Sartuz*) Egun on, jaun meral

MERA: Egun on, jaun medikua... Hor zira beraz!

MEDIKUA: Ba, Koxe hargina eta bere emaztearekin jina... Ez da bederen biltzarra luzegi izanen?

MERA: Ez... Ahal bezen laburra... Apur bat askiko duzue egoitea sarrean... Bulegoko jaunak etorriko dira laster... Bi solas heikin ibili-eta sar araziko zaituztet. Badira beste batzu ere, hor dagotzinak aiduru.

MEDIKUA: Galdetzen dautzutana da ez sobera solas ibiltzeko, eria asalda dezakenik.

MERA: Ez, ez... Kasu emanen dut... Nola du burua?

MEDIKUA: Adimendua xuxen du, bainan zorrotz eta minbera.

MERA: Zerk hortaratu du?... Nekez du odoleko gaitza?

MEDIKUA: Ez, bainan du mende huntako eritasun bat: Paper eritasuna!

MERA: Paper eritasuna?

MEDIKUA: Ba... Oraiko mendea holakoa da... Paperetan sartzen den gizonak, iduri du armiarma sarean sartu ulitza. Sare hartan zalapartaka leher egiten du, bainan ororen buru, paper gizonak biltzen eta bentzutzen dute, armiarmak ulitza bezala... Koxe hargina, paperetan ari izan da zalapartaka, erotu artio... Bainan, orai ohartzten ari da, debaldetan ibili dituela bere urratsak... Zainak bultatuak baitzituen, kras-katzen ari zaizkio. Asaldura handien ondotik etortzen den hildurak jotzen ari du.

MERA: Gizagaizoa... Papera pentsatu zuena, ez bide zen dudatu, hoinbestetaraino papera hastiro izanen zutela zonbaitek.

MEDIKUA: Hola da gizonen zorrea... Den gogoratze hoberenak, berekin garreatzen zerbait makurbide. (*Atea jotzen dute*)

MERA: Aintzinat... Ha, huna gure bulegotako jaunak! (*Sartzen dira A. B. eta C. jaunak*)

MEDIKUA: Bon, ontsa da... Gauza bat dautzuet bakarrik galdatzen, jaunak: Ez dezozuen Koxeri kontra egin... Ez luke den gutieneko jazarkunde beharrik, orai den heinean... Otoi beraz, eztiki eta baketsuki gurutza zaitezte harekin.

A: Hitzemaiten dautzugu, jaun mirikua, eginahal guziak eginen ditugula zure eria ez dadien asalda.

MEDIKUA: Ontsa da... Beraz, sar arazten dut...

MERA: Doidoi bat egonen zarete otoi atean, sartu aintzin, jaun medikua... Aintzinetik bi solas baditugu elgarri erraiteko jaun hauk eta nik...

MEDIKUA: Zure gomendio, jaun mera... Aski daukuzu dei egitea.

MERA: Ba, deituko zaituztet... (*Medikua badoa*)

VI

MERA: Jaunak, hunarat bildu zaituztet, zueri jakin arazteko, noiznahi jendeak heldu zaizkitala, zuen lanaz arranguratzerat. (*B-ek kexu dela seinale du... Beste biak geldi daude. Gero eta azkarrago mintzo*) Gure mendea da lasterkaren mendea... Biziak manatzen du laster ibil ditzagun urratsak, laster egin lanak... Beraz ere, laster, lanentzat baitezpadako diren paperak. Ez gaitzeko oraiko egunean, oto, airetako eta



garraio mota guziak ziuztan dabilzan denboran, ez gaitezke ibil asto urratsean.

B: Bon... Ez baigira gero gu astoak!

MERA: Zuen paperek, jendeen lana behar lukete lagundu, errextu eta ez trabatu... Oraiko egunean, erosi nahi duzularik edo oto bat, edo menaioko puska, edo beste edozer, saltzaleak etxerat etortzen zaizkizu zuk behar duzunarekin... Hek ba laguntzen zaituztela eta kasik bortxatzen eskas duzunaren biltzerat... Hola behar zinukete zuek ere izan... Jendeari nahi badiozue zerbitzu egin, diozuen bezala, emozkitzue aisetasun guziak... Zoazte jendeen etxerarat, jendea zuen ondotik behin eta berriz ibilarazi gabe... Eskaint jenderi errextasun guziak... Ezar heien eskutan paperak prest. Hola duzue jendea tentatuko etxe egiterat, eta ez zuen molde bihurri, ezazol eta etsigarriekin.

B: Ez gira gu faturrak hola ibiltzeko, ez eta tratulantak... Badugu bulegoan zer egin, hola ibili gabe.

MERA: Eta, ez duzue uste bestek ere badutela zer egin, bulegotan ibili gabe?... Hor, kanpoan ari diren hainitzek, ez ote dute zuek baino oren gehiagoz lan egiten eta zuek baino lan nekeagotan? Ez zinukete batere kalte hetarat joaitea, ikusteko baizik ez balitz ere, zer bizi deramaten.

B: Bakotxa bere da, munduko legea... Hek berentzat ari dira, eta gu, guretzat...

MERA: Zuentzat ari bazinezte eta ez besteentzat, beste molderik har zinezakete, eta bestenaz, laster errekaratuak zinezteke.

B: Errazu ba, eta mintza zaitte garbiki, errazu, gu bezalako enplegatu guziak alfer batzu girela, eta ohoin batzu... Hainitz har eta guti eman, dela gure ofizioa.

MERA: Ez dut holakorik erraiten, bainan ba emaitak handi direla eta hartzeak guti, zuek bezalako har-emankari soberasko delakotz bitarte hortan hazteko.

B: Errazu ba, gutiago bagine lan gehiago egin ginezakela.

MERA: Horixe bera da pentsatzen dudana... Lan debalde hainitz egiten dela zuen bulegotan eta lan moldeak bestelakatur, langile gutiagoz, lan hoberik egin ditakela.

B: Bulegoak, gisa hartarat tresnatuz, baditake... Bainan, zer uste duzu? Tresnez egin lana merkeago ditakela?

MERA: Zuen bulegoak ez dira tresna karioen beharretan... Aski liteke jats bat eta axtur bat, lehena, hainitz paper tzarren kanporat aurtikitzeko, bigarrena, beste hainbeste moztuz laburtzeko.

B: Bai hortaratuko gira, bainan zozoak errege izanen direlarik.

MERA: Ez ote hobeki: Biligarro zombaiti aztaparrak laburtuko diozkatelarik!

B: Etortzen ahal dira gure bipiltzaleak... Gibelerat itzuliko dira orai artinokoak bezala: Galda xehetasunak Koxe harginari.

MERA: Ez zira ahalge ere holako solasen jalitzeko!

B: Aski burua hautsi dauku... Hanbat gaxto orai berak galdu badu.

MERA: Horiek dituzu gizon solasak? Holako ateraldiak eginen dituzu, nahi baduzu, kanpo alde hortan, bainan ez hemen.

B: Bon, joanen gira beraz kanporat. (*Abiatzen da*)

MERA: Ba, joanen zira, bainan ez, hemen ibiltzeko ditugun solasak, ibili gabe... (*B. geldiarazten dute lagunek*)

MERA: (*Aterat burbilduz*) Sartzen ahal zaitezte. (*Sartzen dira: Koxe, Luzi, Medikua, Artzaina, Pantxika*)

VII

KOXE: (*Hiru bulegozainak ikusi ordu, erotzen bezala da*) Urdeak! Ohoinak!... Ustelak!...

MEDIKUA: (*Keinu egiten diote hirneri, ixilik egon daiten*) Jar zaitte, Koxe... Utzaitzu beren gisa gizon horiek.

KOXE: Beren gisa utzi?... Muturra hautsi ba, eginen diotet, hoieri.

ARTZAINA: Ez haiz bakarra... Nik harrokak beheiti bota nezazkek, lehenik bi, eta ondotik hirugarrena ere, hazi gaxtorik ez dadien geldia.

MERA ETA MEDIKUA: Xo, otoi, xo... (*Erranka ari dira, batzu eta besteri*)

B: (*Kexu Artzainari*) Gizon hori egon dadiela ixilik... Edo, bereak entzuten ditu... Ez baita hori, eritasunaz mintzo, bainan gaxtakeriaz.

ARTZAINA: Hurbil hadi, kapable balin bahaiz, zikiro buztana, hil! Zer uste duk?... Paperez ase tripoil baten beldur dela mendiko artzaina?

KOXE: (*Artzainari*) Ekazu makila hori... Ekazu!... Hil behar ditut... Hiruak hil behar ditut... (*Hiruak mehatxatuz*) ...Belaunika



hortik!... Belaunika!... Kriminelak zuek!... Edo garbitzen zaituztet... Belaunika... (*Medikuak hirueri keinu egiten die obedi dezaten*)

KOXE: Eta besoak altxa!... Edo, garbitzen zaituztet hiruak... (*Laster doala pasaia hau dena*)

ARTZAINA: Garbi-aitzik... Garbi-aitzik... Jo-aitzik burutik behera...

KOXE: Eta, galda-azue barkamendu populuari... Erran-azue: Barka populua.

HIRUAK: Barka populua...

KOXE: Ohoin batzu gira!

HIRUAK: Ohoin batzu gira!

KOXE: Jendeaz baliatzale batzu!

HIRUAK: Jendeaz baliatzale batzu!

ARTZAINA: (*Bulegotik paper batzu hartuz*) To papera... Jaterat emotek... Ase daitezela paperez eta leher egin dezatela!...

KOXE: (*Papera emanaz*) Jan papera... Ase paperez... (*Makilaz mehatxatuz*) Jan gero... (*Hiruek obeditzen dute*) Jan ausarki!

MEDIKUA: Bon, orai aski... (*Emaiten da Koxeren eta beste hiruen artean... Jaun merak laguntzen du*) Zuek hiruak, zoazte hortik kanporat... Ale, mugi... (*Hiruak ateratzen dira*)

ARTZAINA: Ihesi zioazik!... Urde zikinak! Garbitu bahintu bederen!...

KOXE: Hil... Hil-zkitzue!...

MEDIKUA: Goazen, Koxe... Goazen etxerat...

KOXE: Ohoinak... Jende pozoinatzaleak... Besten bizkar bizi... (*Medikuak kanporat eremaiten du... Jalitzen dira ere: Luñj eta Pantxika*)

VIII

MERA: (*Artzainari*) Mintzatzen ahal zinen ba leuntxago, makurraren zirikatzeko orde.

ARTZAINA: (*Zintzo eta fermu*) Ez, jaun mera, ez da leunki mintzatzeko tenorea... Hein huntaratuak gira preseski, fermuki mintzatu behar luketen gizonak, sobera xagu eta xakur bilakatuak direlaketz.

MERA: Zer nahi duzu egin dezagun!

ARTZAINA: Zer nahi dugun? Guk nahi duguna da, gure tokitan mana dezaten, guk manatzale hautatu ditugun gizonak. Eta ez nunbaitik, gidatuak diren gizonak... Etxekoak nahi ditugu etxean nausi... Ez kanpokoak.

MERA: Egia, bainan nun ditugu manatzeko giderrak?

ARTZAINA: Ba, nun dituzue giderrak? Guk, zuen eskuetan ezarriak ditugu... Zertako ez dituzue beirutzen, besteen eskutarat utzi gabe?

MERA: Erraitea errex da, bainan obratzeak dira lan...

ARTZAINA: Obratzea berdin errex da... Erakuts hortzak... Ez bederazka, bainan denek betan... Ostiko emaileri ez eskaint gibelatza, bainan makila.

MERA: Egia, bagine aberats, bainan haatik hartzale baigira, emaile giren baino gehiago. Eta hartzekotan denak, umil agertu behar.

ARTZAINA: Zer diozu ez girela emaile?... Eman eta emanaz, gure herriak hustu gizonak. Gure odola eman dugu... Ala zer?... Orai behar ote dugu eman gure euskaldun izaitea eta saldu gure Euskal-Herria?... Horra zertarat ari zareten zuen gurikeria eta leunkeriekin... Orai bezala ariz, oro galtzen ari gira... Sainda dezagun gure aritzeko moldea... Edozoin gisaz, gaizkiago ez gintezke joan.

MERA: Gauzak ez ditugu berdin ikusten... Zuk menditik eta guk... behe-retik.

ARTZAIN: Garbiki eta urrun ikusi nahi duenak, goratik behatzen du, jaun mera, goratik. Arranoek ere hala egiten dute... Ordu da gure buruzagiak izan daitezen arrano eta ez... uzkilazo. (*Ateratzen da*)

MERA: (*Bakarrik, gogoetatua*) Egiaz mintzo duk, egiaz!... Ez duk egia baino puñal zorrotzgorik. Egiazen zorrotza, ha, zizta-zak euskaldunen bihotza!

OIHALA